



12

Euskararen **12** sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!

1

San Juanak, Sanjuanak ala Sanjuanak?

Ekainaren amaierara iristen ari gara eta hastear dira hainbat herritako festak. Ohikoa izaten da hainbat festaren izenak idaztean zalantza sortzea, hemen horretarako jarraibideak:

- Letra xehez idazten dira: sanjoanak, sanferminak, saninazioak...
- Pluralean deklinatzen dira.

Informazio gehiago: Euskaltzaindia.eus



2 Euskalkiagatik txistu



“Zuek ezpazerate kontentu errua ez daukat, ez, nik: txistuak jo dituzue bainan maite zaituztet oraindik!”

1967ko ekainaren 11n, duela 57 urte, Xalbador bertsolariak txistuak txalo bihurtu zituen Donostian. Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu zuten garaiko hamar bertsolari onenek.

Finalera pasa zen Fernando Aire Xalbador, Uztapideri txapela lehiatzera. Zail egiten zitzaien bere **euskalkia** frontoia bete zuten gipuzkoarrei eta epaimahaiaren erabakia txistu hotsez hartu zuten. **Bost minutu eta erdi iraun zuen txistualdiak**, bertsolari bati inoiz egin zaion luzeena.

Mikrofonora hurreratu, abesten hasi eta berriro eten zuten txistuka. Hala ere, airean utzitako hitzak ehizatu eta dotore amaitu zuen. Txalo zaparrada eta disimulatu gabeko malko ugari eragin zituen.



Ikusi bideoa [hemen](#)



Esaera zaharra



- Zer esango zenioke bizitzan dena erraza izatea nahi duenari? Zailtasunen aurrean etengabe kexuka ari denari?
- Bada, hainbat tokitan, ondorengo esaera erabiltzen da honelako kasuetan:

“Larre motzean hazitakoa zara
gero!”

(sorora behin belarra mozturik dagoenean sartzen dena)



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus